

Itxaso Berrojalbiz Zabala Ogasun eta Finantzetako foru diputatuari:

Urtero gertatzen den moduan, PFEZa ordaintzeko momentua heldu da zerbitzu publikoak mantentzeko, eta aurten ere aho zabalik utzi gaitu gastu militarretara bideratzen den sekulako diru kopurua. Izar ere, badakizun moduan ez da Defentsa Ministeriora doan aurrekontua bakarrik, beste ministerio askotara zuzendutako hainbat diru-partida ere daude, azkenean ofizialki aitortzen den diru kantitatea biderkatuz.

Estatu espainiarrak 62.126 milioi euro erabiltzen ditu heriotzaren eta suntsipenaren negozioan, Hezkuntzaren, Kulturaren, Lanaren eta Zerbitzu Sozialen aurrekontuen batura gaindituz. Horregatik aurten ere Gastu Militarrari Eragozpen Fiskala Kanpainarekin bat egiten dut, desobedientzia zibil ezbiolento bat egiten duen kanpaina estatala, 30 urte dabilena martxan, gero eta herritar desobediente gehiago gehitzen duena, hurrengo helburuekin: politika ekonomikoa desmilitarizatu eta zergei helburu kontsekuente bat eman elkartasuna, bakea eta justizia kontuan hartuz, hau da, gizarte artikulazioaren oinarrizko printzipioak kontuan hartuz.

Beraz, kontzienteki, publikoki eta kolektiboki GASTU MILITARRA EZ FINANTZIATZEA erabaki dugu, ez ditugu armadak lagunduko eta beraien desagerpena eskatzen dugu. Badakigu gai batzuk zure eskutik kanpo daudela, baina beste batzuk ez. Beraz, honekin batera, _____-ra ____ €-ko Gastu Militarrari egindako Eragozpen Fiskaleko nire kuotaren bankuko egiaztagiria eransten dizut. Diru kopuru honekin, proiektu kolektibo bat finantzatzeko da, mundu justu eta solidarioago bat eraikitzeko.

Azkenik, Eragozpen Fiskala egitera gonbidatzen dizut, arau bidegabeak desobeditzea politikoki beharrezkoa delako, demokratikoki osasuntsua, etikoki galdagarria eta gainera, ikusi dezakezun moduan, edonork egin dezake.

BILBON-n, 202_ ko _____-ren _____-a

Izena eta abizenak: _____

NANa: _____